

Aretxagazeta

Aretxabaleta ● 2001eko irailak 28 ● 221. zka.



Ekin daitezela San Migelak

Ituririk iturri: Jose San Migel • Iritzia: Jokin Antxia • Kirolak: Oier Aranzabal



Urrian

Zerbitzu eta ordutegi berriak

Ondo pasau San Migeletan!

Iargi Plaza, 6 • Aretxabaleta • Tel.: 943 71 27 92 • Mob.: 658 75 80 12

- >> **Aero-Gim**
Ordutegi berria (13h 15')
- >> **Aerobik Txiki**
8-12 urtekoentzat.
- >> **Yoga**
Goizez eta arratsaldez.
- >> **Salsa**
Astebukaeretan.
- >> **Mugimendu Konzientea**
Astebukaeretan.



Zainduz
OSASUN ETA FITNESS ZENTRUA
CENTRO DE SALUD Y FITNESS

Araba Ibilbidea

20550 ARETXABALETA

Industrialdea F-0-4


Tfinoa.: 943 79 18 44

Faxa: 943 79 29 41

E-mail: info@eguzkigraf.com



**Ondo
pasau
San
Migeletan**



KOOP. E.
S.COOP.

EGÜZKIGRAF

Gripie kontrako bakunie jarten hasi die. Zuk hartzen dozu? Ondo eitten dotzula uste dozu?



Deunoro Bengoa

Ez dot sekule hartu. Neure edadiegatik hartzie toketan jatela esaten dustie baina ez dot hartzen. Gripie be ez dot hartzen eta...



Mª Rosario Alberdi

Hartzeko asmotan nau. Bai oso ondo eitten dust, bakaniaz haixie letxe bielketan dot eta gripie.



Luis Barandiaran

Bixer edo hartukot. Ondo eingo dust, sekule ez dot eta ezer euki.



Mari Aranburuzabala

Bai hartzen dot. Aurten ondio ez dot hartu, baina oin artien ondo ein izen dust beti.



Jose Mari Gorroño

Bai, fan daneko hamazazpi urte honeitan hartu dot. Ondo eitten dust harrezkero ez dot eta nik gripei izen.



Axun Elkorobarrutia

Ez dot hartzen, 65 urtetik gorakuentzat da eta nik ondio ez dauket. Jartie toketan jatenien pentsaukot zer ein, gripie betibe harrapetan dot eta.

Aretxagazeta

221. zenbakia. 2001eko irailaren 28an.
Durana 11, 151 postakutxatila.
ARETXABALETA.
Tel: 943 79 86 21.
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@goiena.com

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Lehendakaria: Edorta Mendieta.

Erredakzio-kontseilua: Mireia Uribetxebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre, Ana Hidalgo, Fernando Berrizbeitia.

Erredakzio arduradun eta kazetariak: Amagoia Lasagabaster, Iratxe Bengoa eta Mirari Altube.

Publizitatea: Ziortza Martin

Kolaboratzaileak: Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Rosa Del Aguila, Amaia Berezibar, Murruxiko mendi elkarte, Zaria mendi taldea, Loramendi E. E., Udala.

Banatzaleak: Aitor Urrutia, Iratxe Arbulo, Leire Otaegi.

Inprimategia: Eguzkigrif, Koop. Elk.
Tirada: 1.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94. ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxabaletako Udala,
Gipuzkoako Foru Aldundia eta
Eusko Jaurlaritzako kultura
sailaren laguntzaz

BALITXAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

Hiruatzek Rukullakta proiektu berria hasiko du Ekuadorren

Hiruatz hirugarren mundu taldeak Indian Gujaterako Adivasiekin zuen proiektua bukatutzat eman du. 120 esne-bufala, jeep bat eta biltegi eta bilera-gela izango den eraikuntza lortu dira atxabaltarren diruarekin. Bertan bizi den Ignazio Galdosek, gainera, lanak bukatuta daudenean azken txostena bidaliko du.

Pentsu osatua egitera

Proiektu bat bukatzearekin batera beste bati emango diote hasiera Hiruatzekoek. Oraingoan, Ekuadorreko amazonia aldera jo dute eta quichua indigenek osatzen duten kooperatiba bati eman gura diote laguntza, Rukullakta kooperatibari. Indigena horiek 42 mila hektarea daukan lur sail baten jabe dira eta guztira 700 familia bizi dira bertan. Proiektuaren

helburua hegaztientzat, txerrientzat, arrainen-tzat... pentsu osatua egitea da eta horretarako eskura dituzten zereal eta ohianeko beste produktu batzuk erabiliko lituzkete. Gaur egun martxan daukate pentsuaren fabrikazioa, baina kantitate txikitian eta helburua fabrikazio-ahalmena eguneko 50.000 kg.tara igotea da.

Hau guztia lortzeko Aretxabaletan 14 milioi bat gura dira. Oraingoan, ostera, proiektua ez da bakarrik aurrera eroango, Marínako Munduzabal taldeak 7 milioi emango ditu eta. Mundukide fundazioa, gainera, pentsuak egiteko plantaren kudeaketarako ekipoaren trebakuntza eta jarraipenaz arduratuko da.

Urriaren 9an aurkeztuko du Hiruatzek proiektu berria Loramendiko lokalean.



Animalientzat pentsu osatua egingo dute Ekuadorreko quichuek.

Dorleta taberna

Bezzeroen zerbitzura

Loramendi, 8
☎ 943 79 94 15



FELIX
PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
☎ 943 77 00 33/79 42 56


Lasai

Mirian Manteca
MASAJISTA

Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 etxabea
20550 Aretxabaleta

Masaje terapeutikoan
Posturen azterketa eta
egokitzean
diplomatua

Tel.: 943 77 04 34



SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA ZENTRUA

- Yoga
- Bioenergetika
- Psikoterapia (taldea eta indibiduala)

Lezama komertzial zentrua - Santa Kurtz, 24
20550 ARETXABALETA -Tel.: 616 965 795



PARROKIA IRAILAREN 29AN ZABALDUKO DA

Aretxabaletako Andre Mariaren Zeruratze parrokiak zazpi hilabetetan itxita egon ostean irailaren 29an zabalduko da. Parrokiaren berrikuntza lanak bukatutzat eman daitezke, nahiz eta xehetasun bat edo beste falta, hori dela eta zabaltzea erabaki da. Hogeita hamarren bat emakume garbiketa lanak egiten ibili eta gero, Mitarteko behin behineko elizan zeuden aulki eta gainontzeko tresnak bueltan ekarri dituzte aste honetan. Zapatuan arratsaldetako zazpi eta erdietan izango da berritutako parrokiaren lehenengo meza. Parrokiaren inguruan lan egiten duten taldeek ere, berritutako getetan hasi ahal izango dute kurtsoa.

Inauguraketa ofiziala, osterara, ez da oraindik egingo, gotzaiarekin data zehazteko dago, baina urria bukaeran edo azaroran izango da seguru asko.



Jubilatuek bapo pasatzeko aukera izango dute urriaren 6an

Jubilatuen eguna urriaren 6an ospatuko da

Datorren urriaren 6an jubilatuen eguna ospatuko da Aretxabaletan. Urtero letxe egitarau polita prestatu dute udaleko ongizate sailkoek egun zoragarria pasa dezaten gure nagusiek. Goizeko 11etan salda egongo da Basotxon eta eguerdiko 12:30ean meza parrokiaren. Ostean, eguerdiko 13:30ean, bazkaria izango dute kiroletxean: barazki menestra, urdaiazpikoa,

bildots errea entsaladarekin eta tarta jateko aukera egongo da, baita kafea, kopa eta purua ere. Ohi-turari jarraituz, dantzaldia izango da "Ludi-berri" taldearekin eta ostean, opari banaketa.

Bazkarira joan gura duena irailaren 29a baino lehen pasatu beharko da Basotxotik txartela jasoteko. Bazkariaren prezioa 500 pezeta da.

EAJ-EA KOALIZIOAK ALKATEARI IDATZITAKO ELKARTASUN GUTUNA

EAJ-EAk argitaratutako gutunean, lehenik eta behin bere elkartasuna adierazten dio alkateri. Honetaz gain, mehatxuen aurrean biktimizeko elkartasunak eta biolentziaren gaitzespenak berdintzen dituela demokrata guztiak esanez, EAJ-EAk beti agerian jarri duen gaitzespen jarrera berresten du. Bestalde, alkateak gobernu batzordearen isileko erabaki bat apurtu izana leporatzen du gutunean. Hala ere, EAJ-EAren borondatea ez dela aldatu eta bakearen eta eraikuntza nazionalaren alde lanean jarraituko dutela adierazten dute argitaratutako gutunean.

ERROLDA EGUNERATZE-KO INKESTAK

Diputazioak herriz herriko errolda eguneratu gura du. Horretarako herrian bost lagun hasiko dira etxetzeko galdeketa egiten. Orain arte sei urtean behin eguneratu izan da errolda, baina aurreko Foru Aldundiaren erabakiz lehenago egingo da. Besteak beste, etxebizitzaren eta norberaren lanari buruzko galderak egingo dituzte.

AZKARATE
aroztegia

943 76 47 19 eta 610 88 40 20

ateak • leihoak
horma-armairuak
tarimak • parketak

LANTOKI BERRIA
LABEGARAIETAKO INDUSTRIALDEAN

AZKARATE

TXILARRA
ELIKADURA
BEREZIA

Durana, 35 - Tfnoa: 943 79 10 15
Loramendi, 9 - Tfnoa: 943 79 44 28

ARETXABALETAKO AKORDEOI ORKESTRA DANIMARKARA Aurten ere bidaia edarra egingo dute herriko akordeoilariek. Urriaren 5ean Danimarkara joango dira orkestrako 22 lagun kontzertuak eskaini eta turismo apur bat egitera. Allerod izeneko herrira joango dira, hain zuzen ere. Joan zen urtean hangoak etorri ziren Aretxabaletara eta orain bisita itzuliaz joango dira. Bederatzi egunetan zehar, 5 kontzertu eskainiko dituzte, bat Alleroden eta besteak Danimarkako beste toki batzuetan. Autobusean sekulako bidaia egin ostean, herrira urriaren 13an itzuliko dira. Aretxabaletako akordeoi orkestrakoek gainera, beste bidaia bat egiteko planak burutzen dihardute. Datoren martxoan Pragan ospatuko den nazioarteko akordeoi lehiaketan parte hartzera joango dira.



Larrino eta Arientzako bideak udalaren eskuetara pasatuko dira

Aretxabaletako Larrino eta Arientza auzoetako bideak udalaren eskuetara pasatzea onartu zen asteleheneko plenoan. Orain arte Gipuzkoako Foru Aldundiarrenak izan dira eta udalaren ardurapean utzi aurretik konpondu egin beharko

ditu. Horrela erabaki zuten Anjel Bergaretxe alkateak eta Antton Jaime diputatuak uztailean egindako bileran. Dirurik baldin badago behintzat konponketa lanen proiektua aurtengo urtea bukatu aurretik egingo da.



Hemendik aurrera Apotzaga-Etxebarri izango da

Irailaren 24an egindako osoko bilkuran Etxebarri auzoari Apotzaga-Etxebarri izena jartea erabaki zen. Garai batean Eskoriatza eta Aretxabaleta bat eginda egon ziren, eta banatzerakoan, Aretxabaletako lurretan geratu zen Apotzaga auzoko zatiari Apotzaga-Etxebarri jarri zitzaion. 1980an, ostera, auzoaren izena Etxebarri izatea erabaki zuen udalbatzak. Astelehenetik aurrera, barriro, Apotzaga-Etxebarri da Euskaltzaindiak gomendatu bezala.



OROKO SANEAMENDU LANAK

Egin eta martxan jarri da dagoeneko Oro auzoko saneamendua egiteko proiektua. Bi hilabete eta erdiren bueltan, baserri guztietan hodiak sartu eta denak Larrinbiko errebueltan dagoen arketara bideratuko dira. Hortik, gero herriko saneamendurako hodi orokorretara joango da zikinkeria guztia. Proiektua LKS enpresak idatzi du, baina lanak Excavaciones Arrasatek egingo ditu. Udalak ia 20 milioiko aurrekontua beharko du lan horiek egiteko.

UDALETXEAN TELEFONO ZENBAKI ALDAKETA

Aretxabaletako udaletxean telefono zenbaki aldaketa egin da. Hala eta guztiz lehengo zenbakia Gabonak arte martxan egongo da herritarrak aldaketara ohitu daitezten. Berrikuntzak ere badaude, batetik udaletxean inor ez dagoenean erantzungailua egongo da eta bestetik, udaltzainei poltsikoko telefonoak jarri zaizkie eta bulegoan ez daudenean hara pasatuko zaizkie deiak. Zenbaki berriak: zentralita 943 711862 udaltzaingoa 943 711863 faxa 943 711865

Maritxu
drogeria
mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53

ITURGINTZA

J.J

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA KALEFAZIOA

943 79 31 87

OSKAR
GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4

Lie

LURRINDEGIA
OPARI-DENDA

Mitarte, 18 ☎ 943 79 38 59

Aretz

Taberna




- Gosariak
- Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Otartekoak
- Pizzak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Oilasko erreak
- kazuelatxoak

**Ondo pasa
San Migelak!**

ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea Tel.: 943 79 20 14 ARETXABALETA



Gemes edertze aretoa
Edertasun teknika berri-berria

**PRESTA EZAZU ZURE AZALA
NEGUARI BEGIRA**




Durana, 40 ARETXABALETA - Tel.: 943 79 99 18



Aretxabaleta okindegia

*San Migel
jai zoriontsuak*

Basabe, 2 - Tel.: 943 77 00 81
Loramendi, 6 - Tel.: 943 77 17 19



Zenbaki

AHOLKULARITZA

- **Kontabilitatea**
- **Fiskalitatea**
- **Lana**
- **Juridikoa**

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) - ARETXABALETA

Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

e-maila: zenbaki@zenbaki.es

web orria: www.zenbaki.es



PLAZARIK PLAZA HAURRAK DANTZAN

Joan den domekan ospatu zen herrian haur dantzarien eguna. Egun osoan zehar kolore guztietako jantziek bete zituzten herriko kaleak. Hala ere, ez zen jende ugari hurbildu dantza emanaldietara, eta horrek eta domeka arratsaldean egindako eguraldi petralak eguna pixkat ilundu zuten. Hori bai dantzari gaztetxoek zekiten guztia erakutsi zuten!



EUSKARA BULTZATZEKO HITZARMENA

Debagoieneko zazpi udal-
lek, tartean Aretxabaleta-
koak, euskara bultzatzeko
hitzarmena sinatu dute
Euskadiko Kutxarekin. Ar-
gazkian Anjel Bergaretxe,
Eskoriatza, Antzuola eta
Oñatiko alkateekin batera
akordioa sinatzen.




LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



SAHARAKO ERREFUXIATUEN KANPAMENDUA GUREAN

Sahara aldean ziur horrenbeste euri sekula ez dutela ikusi. Izan ere, Jaima delakoa ondo baino hobeto busti zen herriko plazan. Erakusketa eta tearen errituala behintzat, Murrukixoko lokalean egin ziren, aterpean. Duda barik Saharako errefuxiatuen bizimodua zelakoa den ikusi eta ikasteko aukera izan zen asteburuan.



GIDALARI BERRIA

Mikel Alkorta Olalde arrasatearra izango da 2002. urteko gida komertzialaren egilea. Mikelek 24 urte ditu eta marketinaren inguruko ikasketak burutu ditu.

Aste honetan, Aretxabaletako denda eta enpresetan ibiliko da, beraz ikusiz gero egiozue harrera ona gure "gidalari" berriari.



Karmele Bikuña eta Ane Lasagabaster

ANE LASAGABASTER HORTZ KLINIKA



- Odontologia orokorra
- Periodontzia eta implantologia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Ondo pasan San Migeletan

Otalora, 18 solairuartea D • Tel.: 943 79 13 68
20500 Arrasate

Goizez eta arratsaldez irekita

URKULU, S.L. - Industria hornikuntzak



Mitarte, 23

Tel.: 943 79 96 66

Fax: 943 77 10 33

www.urkulu@cadena88.com



TECNAUTOMAT, S.A.

pneumatika - automatizazioa



Soldadura



metabo

ERRAMINTA ELEKTRIKOAK

HITACHI



ERRAMINTA ELEKTRIKOAK



L-10

ILEAPAINDEGI

ESTETIKA

SOLARIUMA

LORAMENDI, 10

TEL: 943 77 01 26

20550 ARETXABALETA

*L-10ek San Migel
zoriontsuak
opa dizkizue!*



Tratamendu kapilarrak eta estetikoak eskaintzen dizkizugu, espezializatuak eta zure neurrira eginak. Zure ilean, azalean eta itxuran eragina duten faktore guztiak ikertuko ditugu, horien egitura eta eraketa tratatzeko eta hobetzeko. Gure zentroan zaindu eta aholkatuko zaitugu, eta etxean bertan jarraipen berezia egingo dizugu. Etor zaitez L-10era, eta itxura alda ezazu. Orain, garaiz zabilta hobetzeko eta zaintzeko.

Geure ondareak

Lanaz, ilusioaz, zorroztasunaz.... mendeetan zehar gizakiak sortu eta lortu du gaur egun dugun ondarea eta honek bereizten ditu hain zuzen pertsonak eta herriak. Beste faktore batzuk ordea, harrokeriak, gorrotoak, bekaizkeriak... murriztu egin izan dute aurrekoengandik jasotako ondarea.

Euskaldunontzat, ondarerik aberatsena euskara da. Horrekin konturatuta, ez dago ikusi baino azken 25 urteetan normal-kuntzaren bidean lortutakoa, politikoen kontsentsuaz gain pertsonen grinari esker. Euskara gure ondare nagusia da baina ez da bakarra. Aberastasun handia jaso dugu gure aurrekoengandik eta zaintzen ez badugu museoko "pieza" bilakatuko dira. Norberak ez badio bereari eusten ezin eskatu ba besteei hori babes-teko.

Nire ustez, herri batek zaindu beharko lukeen beste ondare bat ohiturak eta dantzak dira. Liluraz ikusten dut gure antzeko herriek: Oñatik (Korpusa), Antzuolak (Moroaren Alardea), Zuberoak (Maskaradak)... duten harrotasuna euren ondarea erakusteko eta urtez urte berritzeko: instituzioen kontzientzia, helburu garbiak, lana egiteko gogoia.... Halaber, tris-tura eta pena sentitzen ditut beste herri batzuk jasotako ohiturak gordetzeko duten ahultasuna ikusita eta hauen artean Atxabalta ikusten dut. Justu-justuan eusten diogu Haurren Egunari (Autonomien egunean agerian geratuko da, beste batzuk egiten dutena euren ohiturak gordetzeko). Beinke-Loramendi dantzak, hasierako berotasuna ez du galdu, oraindik behintzat. Jarraipena, jakin badakigu, lanean, zorroztasunean eta ilusioan dagoela. Txino dantza duela 25 urte berreskuratu zen. Gorabeherak izan ditu, gai izan gara berbideratzeko eta datozen urteetan hobekuntza nabaria izango da.

Bukatzeko aipatu gura dot gure aurrekoengandik jasotako altxorrik preziatuenak: Santa Ageda mutilen eguna. Jai hau azken urteotan ondatzen ari da, eskatzen duen maitasuna, zorroztasuna...ez direlako erabili: jantziak ez dira zaindu, dantzak ez dira gogoz hartu, jendaurreko jarrera ez da gorde...

Ohitura hauek zailtasun handiak izan zituzten lehengo garaietan: babes falta, diru falta... baina herriaren grinak eutsi egin die. Gaur egun babesak ez da falta, dirua ere ez, baina bai ordea pertsonon estimua, grina eta ilusioa.

Jokin ANTZIA



Mobiliario
ARENAZA

. ALTZARIAK
. DISEINUA
. APAINKETA

Bizkaia,1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

HAURRAK



UMEENDA
KOKO
MODA

Lezama merkatal
zentrua, 15
943 77 14 86

DOIKALSE

Elektroerosio
lanak


Basabe Poligonoa C-1-1
ARETXABALETA
Tel.: 943 71 18 40

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14

*Galduta zegoen pilota-
rekiko afizioa berpiztu
du gazteengan eta
talde polita entrena-
tzen du egunero-egu-
nero Iturrigorri fron-
toian. Hamabi urte
ostean nork orde-
katuko zain dago, ez
ditu eta bere mutikoak
bakarrrik utzi gura.*



Jose San Miguel

Aretxabaletako pilotarien entrenatzailea

■ **Pilotarekiko afizioa zeuk berpiztu duzu Aretxabaletako gazteengan...**

■ Hala esan daiteke. Lehen afizio haundia zegoen, gero galduta ere egon zen, eta orain hamabi urte lanean hasi nintzenetik poliki-poliki gora joan da. Orduan, Mikel Uribebarria mutiko talde batekin zebilen baina ganore haundi barik eta Mikel soldadutzara joan zenean neu sartu nintzen.

■ **Aspaldi esan zenuen lan horri uztea gura zeniola...**

■ Bai halaxe da, baina ez da ordezkaturiko nauen inor agertzen eta... Hala ere aurtan norbait ekarteko asmatan dabilzala uste dut, hala bada nik utzi egingo diot.

■ **Nekatuta lan honetan?**

■ Nekatuta ez baina ordu asko dira. Astean lau egu-

netan hiru ordu inguru egoten naiz, batzuetan gutxiago hurrengoan gehiago, eta gero aste bukaeratan partiduak egoten dira. Pasa den astean ere hiru partidu egon ziren Aretxabaletan. Entrenamenduetan, gainera, xehetasun asko zaindu behar dira: zein pilota erabili, bost ezberdin erabiltzen ditut eta, neska-mutikoak nola entrenatu, adinaren arabera ezberdina da...

■ **Emaztea ez da hasarretzen?**

■ Batzuetan bai eta hurrengoan ez, baina egia da denbora asko pasatzen dudala pilotaren inguruan.

■ **Eta aurtan Gipuzkoako herri arteko txapelketan finalean izan zarete...**

■ Bai hala da. Iaz hirugarren postuan geratu ginen, aur-

ten bigarreanean eta datoren urtean ikusi egin behar... atzeraka joatea ere gerta daiteke. Egia esan txapelketa honetan parte hartzea ez da samurra, hiru ekipo behar dira eta hirutik bi onak izatea eskatzen da. Seguru asko Aretxabaletak, hemendik urte bira ezingo du parte hartu, hutsunea dagoelako haundien eta txikien artean.

■ **Aretxabaltan pilotari onik ezagutuko dugu?**

■ Neuri bat gustatzen zait asko, baina batzuetan partidu oso onak jokatzen ditu eta hurrengoan ez. Ez dakit... Ona izateko gainera, pilotan jokatzeaz gain ondo gertatu behar da gorputza: gimnasia joan, takarran egin...

■ **Noiztik pilotarekiko afi-**

zioa?

■ Txikitatik, orduan ondo pasatzeko ez zegoen beste ezer eta. Frontoiak, gainera, eskasak ziren, zabalak, eta neguan ia ez genuen jokatzen, atarte eta elizpetan ibiltzen ginen.

■ **Zeu ibilita zaude txapelketatan?**

■ Bai, baina gora behera haundiak izaten nituen ez nintzen zaintzen eta. Eskuak ere ez genituen orain bezala zaintzen eta gaizki ibiltzen nintzen.

■ **Urte hauetan egindako lana eskertu gura dizute. Zer deritzozu?**


■ Ez dut uste omenaldirik merezi dudarik. Nire aurretik, gainera, beste asko daude, Bixente Etxandia esaterako, lan haundia egin du berak futboleant.

XIX. mende erdialdera, Denim oihala Kaliforniako meategietako kanpadendak egiteko erabiltzen zuten. 1870eko hamarkadan, galtzak diseinatu zituzten oihala harekin: bakeroak.

1950eko hamarkadan, rock-and-rollaren eta zinema estatubatuarren eraginez, mundu osora zabaldu ziren bakeroak.

Debagoienean, 1846an, Fabrica de Hilados, Tejidos y Estampados de Vergara sortu zen. 1974an, Tavesa izenarekin ordurako, bakero oihala egiten hasi zen.

Gaur egun, eskualdeko bakero oihala gehiena bi lantegik ekoizten dute: Algodonerak eta Narvaizak. Biak batuta, 300 lagun ari dira lanean eta urtean 4.500 milioi inguruko salmentak dituzte.





San Migel jaien nondik norakoak

Irailaren bukaeran ospatuko ditugun San Migel jaiek hamaika urte besterik ez daukate. Herritarrek eskatu eta eurek sortutako jaiak dira, behar bada horrexegatik egoten da hain giro polita zapatuan. Lehenengo urtean antzinako ezkontza egin zen, bigarrenean bataioa eta hirugarrenean euskal festa. Hau, gainera, datozen 30 urtetan egiteko konpromisoa hartu zen.

Andramaixetan gero eta jende gehiago zegoela kanpoan ikusita, beste jai batzuen beharra sortu zen herrian. Aretxabaletako kuadrilak izan ziren eskaera egin zutenak eta udaleko kultur teknikariarekin batera erabaki zuten noiz eta zer antolatu. Irailean izango zen, eta antzinako euskal festetako giroa berreskuratu gu-

ra izan zen.

Antzinako ezkontza eta bataioa

1990eko irailaren 29an antzinako ezkontza antzeztu eta ospatu zen. Herritar ugari ibili zen antolaketa lanetan, berrogeita hamarren bat bai, eta ezkontzaren antzezpenean parte hartu zutenak ehun eta berrogeita hamar inguru

izan ziren. Lan handia eman zien lehenengo jai horrek: erropak handik eta hemendik lortu, batzuk Donostian alokatu egin zituzten, idiak eta gurdia ekarri baserri batetik, ohea beste batetik, etxerako tresna eta osagaiak: izarak, platerak... ezin zen ezer falta. Arratsaldeko zazpitan atera ziren kalejiran, azken orduan estu eta larri

trikitilarien atzetik ibili ostean, eta ez zen inor falta, ezkongaiak, senitar-tekoak, inudeak, artzainak... Afaltzeko orduan hirurehun bat lagun batu ziren mahaiaren bueltan Durana kalean.

Hurrengo egunean, berriz, domekan, haur dantzarien eguna antolatu zen aste bukaerari festa giroa emateko.

ERREPORTAJEA



Hurrengo urtean bataioa ospatu zen. Behin martxa hartuta bigarren hau askoz samurragoa izan zen, ospakizuna bera ere apalagoa zen eta. Umea lortzeak bere burukominak eman zizkien, eta azkenean Izaro izan zen bataiatua. Eguraldi kaskarraren ondorioz urte horretan Iturrigorri frontoian egin zen afaria.

30 urtetarako feria

Hirugarren urtean euskal festa antolatzea erabaki zen, erromerietako giroa berreskuratu eta artisauen eta baserriarren lanez gozatzeko asmotan. Hau, gainera, hurrengo 30 urteetan egiteko konpromisoa hartu zen.

Jendearen parte hartzea hozten joan zen heinean Loramendi Euskara Elkar-tea sartu zen udaleko kultura sailari laguntzen. Azken honen eta Loramendi Dantza Taldearen artean Beinke-Loramendi dantza asmatu eta martxan jarri zen. Taloak egiteko ardura

ere Loramendiko Tril emakume taldeak hartu zuen.

1996an, barriz, kuadrilak omenalditxoak egin gura izan zion Joseba Larrinagari. Bera izan zen lehenengoa eta ostean, Ramon Eraña, Andoni Zubizarreta, Aintzane Aizpurua eta Juanito Urreta etorri ziren. Aurten Jose San Migueli emango dizkio esker-erak, herriak gaztetxoei pilotan jokatzeko erakusten pasatu eta pasatzen dituen ordu guztiak direla eta.

San Migelak, beraz, herriak herritarrentzat sortu eta antolatzen dituen festak dira. Udala bada ere antolatzaile nagusia, Loramendi Euskara Elkar-tea, Leizarra Musika Eskola, txistulari taldea, Udako txirrindulari eta pilota taldeak, Aretxarte, eta Gestorak eta Segi ere tartean dabiltza. Eguraldiak zeresan haundia izango du baina giroa geuk sortu behar dugu egoki jantzita, festetako ekintzetan parte hartuta... Ia hala den!

**Aurtengo egitaraua****Eguakotxa**

- 18:30 Txupinazoa eta japoniar bonbak Herriko plazan.
 19:00 Kalejira erraldoi eta buruhaundiekin txistulariek lagunduta.
 21:00-22:30 Triki ta ke taldearen emanaldia Herriko plazan.
 23:00-00:30 Triki ta ke taldearen emanaldia Herriko plazan.

Zapatua

- 10:30 Diana herriko txistulariekin.
 11:00 Txalaparta Durana kalean.
 11:30-13:00 Trikitilariak kaleak alaituko dituzte.
 12:30 Salda Durana kalean.
 13:00-14:00 Jesus Mari Irazu eta Xabier Zeberio bertsolariak.
 14:30 Herri bazkaria Gestorek eta Segik antolatuta. Ostean asto karrera.
 17:00 Hala gera gaiteroek kaleak alaituko dituzte.
 19:00 Beinke-Loramendi dantza Herriko plazan. Jose San Migueli agurra.
 20:00 Larrin dantza Durana kalean.

22:30

IX. San Migel bolo txapelketa.

22:30

Izotz taldearekin dantzaldia Herriko plazan.

23:00

Afizionatu mailako pilota partiduak.

00:00

Manifestazioa "Konponbide demokratiko baten alde presoak etxera" lemapean Mitarte plazan hasita.

Gainera, artisau feria eta VII. azoka ekologikoa, taloak, sagardoa...

Domeka

- 10:00 Gazteendako udazkeneko txirrindulari kriteriumaren hasiera. Bukaera 11:30etan Mendiolan.
 13:00 Herrik kirolak: Motozerraz egurraren lanketa Herriko plazan.
 16:00 Erlojuz kontrako txirrindulari lasterketa.
 16:00 IX. San Migel mus txapelketa.
 16:30-20:30 Haurrentzako parkea.
 18:00 Erlojuz kontrako txirrindulari lasterketaren bukaera.
 20:30 "Re+fa zuzenean" ikuskizuna Tirri-tarraren eskutik Herriko plazan.



Futbola

Uda taldeko preferentea lehenengo postuan. Aurreten denboraldia bikain hasi du preferente mailako Uda taldeak. Domeka honetan Irungo taldearen aurka jokatu eta 1 eta 0 irabazi zuten etxekoek. Gola Canas gazteak sartu zuen hasierako minutuetan. Azken garaipen honekin, Atxabaltako taldea sailkapen orokorreko lehenengo postuan kokatu da bederatzi punturekin. Hala ere, atzealdean Elgoibartarrak gogor ari dira borrokan. Hauek ere, bederatzi punturekin daude sailkapenean. Domeka honetan Udako jokalariek Tolosarrak izango dituzte aurrez aurre.



Pilota

Klub arteko pilota txapelketa hasi da. Gipuzkoa mailako elkarte desberdinen arteko pilota txapelketa jokatzeko hasi dira herriko pilotariak. Joan den asteburuan jokatu zituzten lehenengo partidak, eta emaitzak ez ziren oso onak izan. Kanpoan 3 partida jokatu eta bakarria irabazi zuten. Lasagabaster eta Alzolak 20 eta 22 irabazi zioten partida gogorra jokatu eta gero Hernaniko bikoteari. Etxean jokatuakotan ere antzeko zerbait gertatu zen. Lehenengo eta bigarren mailako jubenilek galdu egin zuten. Errasti anaiek, barrez, 22 eta 11 irabazi zuten Azkoitiaren aurka.



Saskibaloia

3X3 modalitateko saskibaloia txapelketa. Gazte txekoek hiru jokalariren aurrez-aurrez neurtzen diren motako saskibaloia txapelketa antolatu du. Gehienez bost laguneko osatutako taldeak egin daitezke parte hartzeko. Taldeak Gaztetxean, Izotz tabernan edo Ezkutun eman dezake izena urriaren 10a baino lehenago. Apuntatzeko orduan gainera, taldeak 3000 pezeta jarri beharko du. Lehenengo partidua urriaren 20an, zapatuan, jokatu da. Sailkapenean lehenengo hiru taldeek diru sariak izango dituzte. Horrez gain, trofeo edo kopak ere emango dira.



Mendia

Alberto eta Jon Lazkano EEBBetan. Irailaren 19an abiatu ziren Alberto Iñurriategi eta Jon Lazkano bergararra EEBBetara. ETB bateko "oinak izarretan" telesaileko beste erreportaje bat grabatzera joan dira Yosemiteko parke naturaleara. Jakin dugunez, New Yorkeko atentatua dela-eta hainbat arazo izan dituzte. Izan ere, Jon eta Alberto ondo heldu arren, EEBBetara eraman beharreko material ugari Italiako aireporturen batean gelditu zen ezin mugiturik. Guztira, hamabost bat egun igaroko dituzte Yosemite. Gero, herrira bueltatu eta azaroran Himalayara joateko gertakizunak hasiko dituzte.



ZERBITZUAK:

- ERREHABILITAZIOA
- MASAJE TERAPEUTIKO ETA KIROL MASAJEA
- AKUPUNTURA
- OSTEOPATIA
- ELEKTROTERRAPIA - ULTRASOINUAK
- DRENAJE LINFATIKOA ESKUZ
- GIHAR INDARTZEA
- PODOLOGIA



Partikularrekin eta seguru etxeekin lan egiten dugu: (Lagun Aro, Adeslas, Mapfre, etab.)

Jar zaitez profesional espezializatuen esku.

Zine osasuna gure ardura da.

ERREHABILITAZIO ETA MASAJE ZENTRUA



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu



Udazkeneko kriteriuma egingo da San Migeletan

UDA txirrindularitza taldeak San Migeletarako proba berezia antolatu du aurten ere. Kriterium erakoa izango da eta lasterketa bi egunetan ospatuko da. Zapatuan, hau da irailaren 29an Urnietan korrituko da lehenengo lasterketa.

Bigarrena, barrez, domekan Aretxabaletan egingo da. Bi lasterketa horietan denborarik onena egin duten lehenengo 21 txirrindulariek, arratsaldean erloju kontrako proban parte hartzeko aukera izango dute gainera. Sailkapen orokorra, aurreko bi etapetak denborei gehituta aterako da. Herrian egingo den lehenengo lasterketa, goizeko 10:00etan hasiko da Durana kalean eta Eskoriatza eta Arrasate herrietan ibili ostean Mendiolan bukatuko da. Erloju kontrakoak, barrez, Durana kalean izango du irteera eta helmuga.

Oier Aranzabal Murrukixon ibili da lanean. Piraguismo saileko arduradun gisa urte batzuk eman ostean, orain postua beste norbaiti uzteko garaia iritsi zaio. Badaki herrian zaletu ugari dagoela, hala ere gainontzeko jende guztia piraguan ibiltzera animatu gura du.

■ Zenbat urte eman dituzu Murrukixon?

■ Duela bost urte hasi nintzen Murrukixo elkartearen parte hartzen. Lehenengo urtean batzarkide bezala aritu nintzen, gerora eski eta piraguismo saileko arduradun gisa.

■ Bi sail horietako arduradun gisa zein lan egin dituzu?

■ Eski mailan urtero Frantziako eski pistetara irteera bat eta eski trabesia pare bat antolatzen nituen. Piraguismoari dagokionez barrez, urteerak antolatzeaz gain, federazioari dagokion arloa eta materialaren mantenimenduz arduratzen nintzen. Garai honetan, gainera, bi piraguaz gain material ugari erosi dugu.

Oier Aranzabal Piraguismo saileko arduraduna

■ Piraguismoak nahiko arrakasta izan du aurten, ez da horrela?

■ Bai, lau urtetan piraguismoan 50 federatu izatera iritsi gara. Gainera azken urtean, Urkuluko piraguak 125 bat aldiz erabili dira, eta hori oso marka polita da. Horrez gain, azken urte hauetan egin ditugun piragua urteeretan oso giro jatorra izan dugu.

■ Nora egin dituzue irteerak?

■ Gállego eta Errobi errektara irteera oso politak egin izan ditugu. Piraguismoan gustura ibiltzeaz gain, erreka ondoko kanpaldiak, Txurdaren abestiak sutondoan... benetan


oroitzapen ona utzi digute taldeko lagunoi.

■ Urkulun ibili daiteke piraguan?

■ Ez, ur partzuergoak mila baldintza eta traba jarri dizkigu, hauetako batzuk gainera, gure ustez gehiegizkoak. Ondorioz, tramitekin aurrera ez jarraitzea erabaki dugu.

■ Orain Murrukixo utzi egingo duzu, badago zure postua beteko duenik?

■ Oraingoz ez dugu pertsona konkreturik aurkitu, hala ere, ziur piraguisten artean norbait animatuko dela. Pertsona bakarra beharrez, agian taldetxo batek hartuko du saileko ardura.



IRIARTE

Umeen
denda
eta
lentzeria



Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96

IBARRA estankoa



PRENTSA ETA
IKASMATERIALA

Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana, 9
Tel.: 943 79 19 79

Zortzi hilabete gure artean pasatu ostean San Migeletako jaiekin batera esango digu agur Loramendi Euskara Elkartearen lanean ibili den bergarar honek. Merkataritza sailaz arduratu da bera, gustura gainera, baina egun osoko lana eskaini diote eta ezin ezetz esan.

Olatz Olaso

"Loramendin lan egiteko herrikoa izatea garrantzitsua da"



■ Zer ikasi zenuen?

■ Soziologia.

■ Zertan gustatuko litzaizuke lan egitea?

■ Soziolinguistikarekin lotutako zerbaitetan.

■ Zertan egon zara Aretxabaletan?

■ Loramendiko merkataritza sailaz arduratu naiz.

■ Zergatik joango zara?

■ Goizetan Gasteizen nabil lanean eta arratsaldetan Loramendin. Orain egun osora luzatu didate lan kontratua Gasteizen eta hara joango naiz.

■ Zergatik uste duzu irauten dutela hain gutxi langileek Loramendin?

■ Ez da ez diruagatik, ezta laneko giroagatik ere, egun erdiko lana delako da. Jendeak egun osokoa topatzen duenean alde egiten du.

■ Loramendin lan egiteko herrikoa izatea garrantzitsua al da?

■ Bai, oso garrantzitsua. Ez bakarrik herritarrak ezagutzen dituelako, lanari begira ere lotura haundiagoa izan-go duelako: elkarrekin... Atxabaltarrak kurrikuluma bidal-tzera animatzen ditut.

■ Dena gertu San Migel jaietarako?

■ Bai, txikieria batzuk besterik ez dira falta lotzeko.

■ Omenaldiarekin arazotxoren bat izan duzue, ez?

■ Ez, arazoa ez. Guk Tril taldearen inguruan dabilen emakume bati egiteko ilusioa geneukan baina berak ez zuen gura.

■ Beinke-Loramendi dantza dantzatzeko duzue?

■ Bai, ikasten ibili naiz eta dantzatzeko asmoa daukat.

■ Aurten mutil gehiago daude?

■ Ez, ez bakarrik mutilak, egia esan nahiko jende gutxi ibili da ikasten. Ikastaroa ez dakitenentzat zen eta jende askok badakienenez azkenengo entsaiora agertuko den ustea daukagu.

■ Eta talorik egingo duzue?

■ Baita. Ez dakit taloak egitea tokatuko zaidan edo zartaginarekin egotea baina zerbait egingo dut.

■ Jendea barrero hasi da erromerietan parte hartzen?

■ Ez, oraindik plazak hutsik egoten dira.

■ Trikitrixa edo bakalaua?

■ Trikitrixa.

■ Sagardaua edo kalimotxoa?

■ Sagardaua.

■ Udazkena edo udabarria?

■ Udabarria, lorauntsaren alergia dela eta gaizki pasatu arren gurago dut udabarria, bero zalea naiz eta.

Jou Diaz



Harakina

Loramendi 1, • Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 79 91 84
Aretxabaleta

LEIBAR

arrandegia

Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79



Artano akaitegia



ondo pasau San Migelak

**Gosariak goizeko
7:00etatik aurrera:**

- opilak
- pastak
- tostadak
- integrala

Herriko plaza, 3
Tel.: 943 79 62 75



Garbitu koop. E.

Honako garbiketak egiten ditugu:

- BULEGOAK
- ESKOLAK
- EGOITZAK




Errekabarren, 3 Tel.: 943 77 14 00

LEIBAR ARRAZINDEGIAK Mitaro, 1 • Tf: 943 771379 Loramendi, 1 • Tf: 943 791833	ERRASTI Kioskoa Durana, 19 • Tf: 943 799876
Maritxu Mertzeria Araba Ibilbidea, 24 Tf: 943 79 23 53	GEMES Durana, 40 Tf: 943 799918 EORTZTE AIRETORA
Jon KARATEA Loramendi, 1 • Tf: 943 79 71 69	Santa Kurtz Janari denda Tf: 943 79 28 19
MartiW CATEGORIA • OFERTATEGIA Mitaro, 16 • Tf: 943 79 01 72	LEINTZ Errekabarren, 3 • Tf: (dendakoa) 943 79 78 63 (ofiziala) 943 79 06 84
FARMA BIZI Loramendi, 8 Tfnoa-Faxa: 943 771818	IRIARTE Umeen denda eta lantzeria Durana, 8 • Tfnoa: 943 79 10 96
MIREN & ZURINE BILIXEN DISEINUA OTAZORA KENPENKETA Otalora kalea, Eliza onurrealdean Tfnoa: 943 771357	TXILARRA ELIKADURA BEREZIA Durana, 35 Tf: 943 79 10 15 Loramendi, 9 Tf: 943 79 44 28
IMANOL JANARI DENDA Gorbea kalea • Tfnoa: 943 79 05 83	Irudi ELIAPAINKETA PILAGUIERIA MIXTA Ereka Barrin, 20 b • Tf: 943 798090
ALBOKA Gazte moda Durana, 36 • Tfno: 943 771610	HERRASTI AKEITA ETXEA CAFES Analar kalea, 7 • Tf: 943 79 32 83
ELECTRONICA XITZORROTZ • Automatu eta mantentimendua • Instalazio elektrikoak • Akustika, sotoa kolektiboak eta parabolikak • Telefono erabilgarriak salmentan eta laguntza • Software digitalak Otalora, 14 • Tfno-Fax: 943 791610	Zubia Oinetakak Paltzek • zapatak • gortzak Mitaro, 14 Tfnoa: 943 79 16 00
NERIAN LORADENDA Tfno: 943 79 70 66	IBER PAPERDENDA LOTERIA Otalora, 2 Tfno: 943 79 29 24



Ondo pasau
San Migelak!

EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO

ZAZPE CENTRO COMERCIAL LEZAMA, 14 Tfno: 943 770792 - irtegiak - arteak - artesania	IBARRA ESTANKOA PRENTSA IKAS-IRAKASLEAK Bizkaia, 3 • Tf: 943 792377
ASENSIO JANTZIDENDA Mitaro, 12 • Tfno: 943 79 10 72 Frutan eta txarkuterian espezialitatea Angelines AUTOZERBITZUA Mitaro, 16 • Tfno: 943 79 61 42	Lasai Manje txerriak Puntan sartuta eta egokitan diploma Lezama merkatal zentrua Santa Kurtz, 24 • Tf: 943 770434
ARETXABALETA ITURGINTZA Durana, 16 • Tfno: 943 79 17 53	JOSU Urdategia Gozategia Kroasategia Janari prestatuak Mitaro, 1 • Tf: 943 77 03 08
G MUSTIETA LEHORREKO GARRIKETA GARBITZE Loramendi, 6, Behea • Tf: 943 79 53 61	Etxabe harategia Durana, 4 • Tf: 943 79 16 61
Jauregi okindegia Otalora, 10 Tf: 943 79 57 47	BEGIBO OPTIKA Loramendi, 10 • Tf: 943 79 98 21
ZENIZ liburudenda Herriko Plaza, 10 Tf: 943 79 75 53	Gertu Jakien elaborazioa eta salmentan Mitaro, 10 • Tf: 943 770612
ALDE ARETXABALETA Murubide IFA Murubide, 4 • Tf: 943 79 91 76	HAURRAK Umeendako moda Lezama merkatal zentrua, 15 Tf: 943 77 14 86
MARI KARMEN oinetakoak KONPONKETAK Errekabarren • Tf: 943 79 59 85	Fruiteria Errekabarren 943 799643 Fruitadenda
XUME Teladenda Errekabarren, 14 • Tf: 943 79 11 19	L-10 LORAMENDI, 10 TEL: 943 77 01 26 20550 ARETXABALETA

Ondo pasau San Migel jaiak



INDUSTRIA HORNIDURAK
MEMESA

Tel.: 943 71 24 25 Fax: 943 71 22 98
ARETXABALETA - ARRASATE - OÑATI



Barruak eta kanpoak zaindu guran

Osasuntsu egoteko miraririk ez dagoela badakigu, baina badira hainbat aste oso zabaldua daudenak, hala nola: kirola egitea, janari garbia jatea, ez erretzea... Ez erretzeko erabakia da hain justu **udaletxe-ko langileek** hartu dutena. Hamairu lagunek hartu zuten parte ikastaroan, eta serio-serio hasi dute egin-beharrekoa. Tartean zinegotzi bi ere badaude, hauek ere konpromisu bat gehiago hartu dute, baina oraingoan ez kanporako. Bide batez, ez litzateke txarto egongo kanpaina gainontzeko herritar erretzaileengana zabaltzea. Makina bat dira eta bazterretan beraien barrena ikatza bezala belztuta dutenak, beti uju eta uju estulka. Ikasi eredu!

Behin barrenak garbitzen hasiz gero, ingurunera salto egitea ere ez dago batere gaizki. Hala, zapatuan, kotxe bariko eguna izan genuen eta Durana kalea itxita egon zen. Hala ere, jende askok ez zuen eguneko mezuarekin bat egin, oso gutxi izan zirelako bekokitik izerdia botata bizikletan aritu zirenak. Bizikleta erabiltzeko da,

eta ez kamaran gordeta hautsak jaten egoteko!!

Gaur hasiko dira herriko jairik indartsuenak, San Migelak. Programa barruan **Anabel Arraiza** izango da gaur gure artean, bera Triki Ta Ke taldeko partaidea da. Ahotsa jarriko dio taldeari. Antzezle bezain abeslari ona den ikusteko aukera izango da beraz. Ikusten duzue denetik egiten duela nafarrak, hortaz, mutilak argi ibili, ziur amak pozik hartuko duela eta horrelako erraia etxean.

Bihar barrez, San Migelak izanda, San Miguel omenduko dute. Pilotaren alde egin duen lana eskertuko diogu guztiok **Jose San Migueli**. Ez da samurra izango bera moduko beste bat topatzea. Batzuk herritar langile hau omenduko dute, baina ugari izango dira gau aldera bestelako San Migel omenduko dutenak, San Migel zerbeza alegia. Honek ere noizbait mereziko du, makina bat eztarri freskatzen dituelako!!

Beste barik banoa plaza aldera **Goitbek** gaur albigetia Aretxabaletatik bota behar du eta. Hurrengo alean izango da zer kontaktu, bitartean kanto honetan geldituko naiz herria zaintzen. Ez nazazue kutsatu mesedez, zaindu barnea eta kanpoa.



Balzac y la joven costurera china

Dai Sijie
Salamandra, 2001

Bi txinatar mutil gazte Tibet ondoko mendietan dagoen herrixka batera bidaltzen dituzte beren heziketa "zuzentzeko", Mao-ren garaian beste askori gertatu zitzaizen bezala. Bertan, nekazaritzan lana gogor egiteaz gain neska gazte bat ezagutuko dute, baita mendebaldeko literatura ere. Irakurketari esker, eta horretarako ezkutuan ibili behar dute, mendietako bizitza gogorra jasan ahal izango dute eta beste bizimodu batzuk ere badirela ikusiko dute.

Liburuan kontaktzen zaizkigunak askotan gauza latzak dira, idazlearen umore ikutuak eta ipuin itxurak arintasuna ematen diote dena den. Nolabait liburu autobiografikoa ere bada, autorea bera hiru urtez egon baitzen mendian bere heziketa "zuzentzen". Liburu laburra duzue hau, hala ere gai asko ikutzen dituen; baina batez ere askatasunaren aldeko oihu bat dela esan daiteke.

Joseba Lopez de Armentia

HIZKUNTZEN EGUNA

Eguazten honetan, irailak 26, hizkuntzen eguna ospatu zen Europan. Euskal Herrian Euskaraz taldeak euskararen aldeko aldarrikapena egin zuen eta Aretxabaletan ere kale agerraldia egin zen geure hizkutz eskubideak eskatuz.

Euskal Herrian Euskaraz taldearen esanetan, euskara ez dago normalizatua Euskal Herriko inongo lurraldean, ezta inongo esparruan ere: ez eskoletan, ez komunikabideetan, ez osasungintzan, ez administrazioan... Euskaldunok, ostera, euskaraz bizitzeko eskubide osoa daukagu eta

horretarako euskararen normalizazioa ezinbestekoa da. Era berean, eskubideak babesteko eta normalizazioa ahalbideratzeko ezinbestekoa da euskararentzat lege geriza lortzea. Lege hori herritarrok sortu behar dugu eta praktikan jartzeko neurriak abiarazi.

Horretarako beharrezkoa da euskararen normalizazioa bilatzen duten erakunde eta euskalzaleon adostasuna eta elkarlana. Horrela lortuko da euskara Euskal Herrian eta Europan hizkuntza ofiziala izatea. Horrela lortuko da Europa berdintsu eta anitzagoa.

IRAILA

28-29-30

■ SAN MIGEL JAIK**29 ZAPATUA****■ ALMEN-JAKION
ESKUBALOI TALDEEN
AURKEZPENA**

Gatzagan, eguardiko 13:00etan aurkeztuko dira Almen-Jakion enpresako saskibaloit taldeak.

30 DOMEKA**■ TXIRRINDULARI
LASTERKETA**

Goizeko 10:00etan hasiko da proba Durana kaltetik eta Mendiolan amaituko da. Arratsaldean erlojuz kontrakoa Durana kalean korrituko da.

URRIA**6 ZAPATUA****■ JUBILATUEN EGUNA**

Goizeko 11etan salda egongo da Basotxon, eta 12:30ean meza parrokiari. Eguerdiko 13:30ean bazkaria kiroltxean eta ostean dantzaldia eta opariak.

9 MARTIZENA**■ HIRUATXEN
PROIEKTU BERRIAREN
AURKEZPENA**

Hiruatz taldeak Rukullakta proiektua aurkeztuko du Loramendiko lokalean arratsaldeko 19:30ean.

**IKASTAROAK****■ TAILA IKASTAROA**

Okila taldeak taila ikastaroa antolatu du. Hasiera mailakoa izango da eta urriaren 1ean hasita arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitartean emango da. Guztira 60 ordu iraugo du ikastaroak. Interesatuok udaletxean, kultur etxean edo Okila taldearen tailerrean (Murubide 5) eman dezakezue izena.

**■ YOGA ETA TOPAKETA
PERTSONAL IKASTAROAK**

Sadhana zentruak yogako hasiera ikastaroa antolatu du urriaren 9tik azaroaren 29 arte. Ikastaro teoriko-praktikoa izango da, eta oinarrizko ezagutza landuko da: ariketa fisiko egoikiak... Taldeak asteazken eta ostiraletan 10:00etan edo astearte eta ostegunetan 20:30etan batuko dira. Topaketa pertsonal ikastaroa ere antolatu du. Hileko bi zapatuetan emango da 10:00etatik 14:00 arte. Izena emateko deitu Sadhana zentzurara 616965795.

IBARRA JATETXEA**ESKAINNTZA**

- Menua
- Karta larunbatetan
- Plater konbinatuak
- Gazte taldeentzat prezio bereziak

BEREZITASUNAK

- Kokotea - Lupina
- Txuletoia - Almejak

* Enkargurik ezean domekak itxita



Araba Etorbidea, 29 ARETXABALETA 943 79 69 86

IKASTAROAK

■ BEGIRALE IKASTAROA

Eskualdeko euskara elkar-
teek begirale ikastaroa
antolatu dute. Zapatuetan
emango da eta izena ema-
teko Loramendi euskara
elkartera deitu behar da
urriaren 11a baino lehen
943 770970.

■ BAINIKA ETA

ESKULAN IKASTAROAK

Rosa del Aguilak emango
du eskulan ikastaroa mar-
tizenetan urriaren 16an
hasita eta bainika ikasta-
roa, barriz, Blanca Perek
asteazkenetan. 18:00etatik
20:00etara izango dira
biak eta prezioa 3.200
pezeta da. Izena emateko
Loramendira deitu 943
770970 urriaren 4a baino
lehen.

Zorion agurrak



Aitor Agiriano
Irailak 26
Eguna pasatuta
badago ere, zorio-
nak eta urte askota-
rako.



Nerea Altube
Irailak 27
Zorionak eta muxu
haundi bat etxeko
danen eta batez ere
Alaitzen eta
Eñauten partetik.



Jose Miguel
Mendikute
Irailak 29
Zorionak etxekoen
partetik!



Ione Perales
Irailak 30
Zorionak familiako
danen partez.



Julen Perales
Irailak 30
Zorionak familiako
danen partez.



Jonan Mendieta
Urriak 6
Zorionak eta muxu
haundi bat Unaien
eta Manolin parte-
tik.



Unai Mendieta
Urriak 8
(urte 1)
Zorionak eta muxu
haundi bat aitaxon
eta amatxon partetik.

Sail honetan norbait zoriondu gura baduzu
Aretxagazetara zuzendu (Durana, 11) edo eta
943 79 86 21 telefonora deitu.

Txistuak • Txaloak

Argazki hau ateratzeko ez dago lan handiegirik egin-
beharrik. Bidegurutzean jarri eta bost minututan beste
horrenbeste auto pasatu dira erdiko marrari kasurik
egin barik. Eta jakina batek egiten duena poliki-poliki
ohitura bihurtzen da eta hor joaten gara danok atzetik.
Bide samurrena eta motzena noski horixe da, baina ez
zuzenena. Argazkiko tunelera sartzeko lehenengo
beste norabidera pasatu beharra dago, baina ez marra
zuzena gaintetik pasatuz, buelta guztia emanez baino.
Detaile txikiak dira honako hauek, hala ere, errespetatu
ezean susto haundiak har daitezke. Danon hobe
beharrez sentzuz gidatu!



Jaiotakoak

■ Leire Barbero Altuna

Irailak 9

■ Aratz Astobiza Palmas

Irailak 9

■ Iker Garcia Okina

Irailak 14

■ Mara Perez Dos Santos

Irailak 19

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkartea	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxiko M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otorra	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 71 18 62
• Udaltzaingoa	943 79 18 63
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



Lehenengo zaharren eguna

Lehenengo zaharren eguna 1969ko uztailaren 20an egin zen Aretxabaletan. Hau ez zuen udalak antolatu, herriko kuadrilak ibili ziren lan horretan. Aipatu-tako ospakizunaren aitzakiarekin, gainera, ume eta gaztetxoak baserritar jan-

tzita atera ziren eta dantzariak ere egin zieten dantzan. Bazkaria Taberna-Barri jatetxean izan zen eta opariak ere eman zizkieten.

Argazkian dotore agertzen direnak, euren opari eta guzti, urte hartako gi-

zon eta emakume nagusienak dira, **Felix Iglesias** eta **Gregoria Okaranza Ugalde**.

Udala, bestalde, handik bost bat urtera hasi zen antolatzen jubilatuen eguna eta geroztik urtero-urtero egin da.

SAN MIGUEL - EKO ESTUDIO ARGAZKIAK

FOTO

Urkiola

Argazkidenda



Herriko Plaza 5
Aretxabaleta 943 79 39 20

Ondo pasa jaixetan!

MARITXU -RAKO ESTUDIO ARGAZKIAK

Taberna eta jatetxeen gida

Zaraia taberna

**MANTEKA
ANAIK**

*Goizeko 5,30etik
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

Haizea taberna



**Kafetegia
eta
taberna**

H A I Z E A

Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60

Express



Santa Kurtz, 16
943 79 23 43

zure gustoko giroa

Gurea taberna

*Eguneko menuak
plater konbinatuak*

GUREA

Durana kalea • 943 79 20 64

Izotz taberna

Zure gustoko giroa

**IZOTZ
TABERNA**

Mitarte, 16 • 943 79 73 65

Arlutz taberna



MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA: 79 32 34

Gustoko musika

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 32 34

Ezkutu taberna



Zatoz gure musikaz gozatzeraz

Mitarte kalea, 17 • ARETXABALETA • Tfnoa: 79 00 00

Hirusta jatetxea

Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza, 4 Tel.: 943 79 06 57

Mendiola erretegia



**Bazkariak
eta afariak**

**Astelehenetan
itxita**

Mendiola auzoa • Eskoriatza • 943 71 43 45

Baster alde jatetxea



**SASOIKO
JAKIAK
GIRO
ONENEAN**

Galarza auzoa
943 79 24 58
ARETXABALETA


Goyaran erretegia



GOYARAN ERRETEGIA

Solohaundi-25 ARETXABALETA 943 79 68 57

Mitartegarai



Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 17 51



Josu taberna

*Josu
harategia
taberna*

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte, 1
Tel.: 943 77 03 08



Taberna Berri

**Taberna Berri
jaketxea**



Durana, 26 • ARETXABALETA
943 79 20 67

Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea
Tfnoa: 79 79 79
ARETXABALETA

Ondo pasau San Migeletan



AUTOAK SORTU EGITEN DITUGU

RENAULT

Laguna Grand Tour

Berritasuna eta segurtasuna
prezio berezietan



Dynamique 1.8 16V (123 ZP). Pintura metalizatua

3.635.000 pta*

Dynamique 1.9 DCI (120 ZP). Pintura metalizatua

3.960.000 pta*

Expression 1.9 DCI (110 ZP). Pintura metalizatua

3.690.000 pta*

Privilege 1.8 16V (123 ZP). Pintura metalizatua eta 8 aire-poltsa

3.900.000 pta*

Dynamique 1.8 16V (123 ZP). Pintura metalizatua, 8 aire-poltsa eta CD kargagailua

3.745.000 pta*

*Stockean dauden autoak.

MECA

Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. **BERGARA.** Tel.: 943 76 40 68

Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa. **ARRASATE.** Tel.: 943 71 24 72

